

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

“Zaporeak eta Landa”, Nafarroan udaberrian egin daitezkeen jarduera turistikoen katalogoa aurkeztu da

Paisaia eta eskaintza gastronomikoaren erakargarritasunaren aldeko apustua egin du berriz ere Gobernuak

Osteguna, 2019.eko martxoak 21

Manu Ayerdi, Garapen Ekonomikoko lehendakariordeak ostegun honetan, Nafarroako udaberriak eskaintzen dituen jarduera turistikoen eskaintza aurkeztu du Artajonan. Paisaiaren aniztasuna eta bertako produktuen dastaketa jasotzen ditu katalogoak, proposamen nagusien artean.

Artajonako San Saturnino elizaren goiko aldean egin den ekitaldian aurkeztu du Manu Ayerdik ekintzen katalogoa, eta nabarmendu duenez, “Nafarroak duen erakargarritasuna, bai natura,

ondare kulturala zein paisaia, probestuz opor garaietatik kanpo turistak erakarri eta fluxu berriak sortzea du helburu kanpaina honek, bereizitutako turismoa egiteko aukera eskainiz. Nafarroak lurralde identitatea ematen dioten aniztasuna eta berezkotasuna ditu. Eta udaberria une egokia da horiek ezagutu edo berrezagutzeko, ta arima animatzen duten udaberriko kolore eta usainez gozatzeko... eta dastatzeko”.

Dastatzeko 1.250 kilometro

[Nafarroako Turismoak](#), iparraldetik hegoaldera, zein ekialdetik mendebaldera lurralde osoa zeharkatzen duten 1.250 kilometro baino gehiago dituen bide, ibilbide, bide berdeak ditu, non hilabete hauetan ematen diren kolore aldaketak ikus daitezkeen eta era berean, baso, urjauzi, ibai ondoko bide, ermita, gailur, hegazti, mitologia edo dolmenak aurkitu daitezkeen. Ibilbideak, bai oinez zein bizikletaz egin ondoren, dastaketa edo ekintza gastronomiko batekin amaitu daiteke.



Ayerdi lehendakariordea, Artaxoako Udaletxeko ordezkariekin, Turismoko langileekin; Irantzu, Ardo Ibilbideko eta Bunkerren Ibilbideko turismo agenteekin, San Saturnino Elizako lauzen teilatuan.

Asteburuetan eta jai-egunetan egin daitezkeen ekintzekin prestaturiko [liburuxkan](#) bakoitzaren prezioa agertzen da: horietariko batzuk debalde dira, ibilbideek 8 euroko prezioa dute pertsonako, 10 euro Gastrobiken kasuan, edo 25 euro bizikleta elektrikoekin egindako ekintzek.

Ekintza guztiak jasotzeko liburuxkarentzako titulu orokor bat aukeratu da “Zaporeak eta Landa”, eta enpresa edo antolatzaileekin ekintza egin aurretik erreserba egitea gomendatzen da.

Zaporedun xendrak Nafarroa osoan oinez egiteko hamahiru bide jasotzen ditu eta horiei bertako eta garaiko produktuen dastaketarekin emanen zaie amaiera.

Natura, kirola eta gastronomiarekin lotutako beste ekintza bat Gastrobikes da. Bizikletaz, BTT edo bizikleta elektrikoaz egiteko bost ibilbide egin daitezke, garai bateko trenbideen historia ezagutzuz eta inguruko paisaiatz gozatzuz 120 kilometrotan barna Aurreko ekintzetan bezala, gida profesionalaz lagundutako ibilaldiak, gastronomia dastaketa batekin amaituko dira.

Ibilbideen liburuxkan gehitutako berrikuntzen artean aurkitu daitezke oroimen historikoarekin lotutako gidatutako ibilbideak, zehazki Pirinioetako gotorleku lerroa Auritzeko [Bunkerren Ibilbidean](#), zein Hirupaegoetako eta Lindus-Menditxuri xendrak.

Naturan egin daitezkeen turismoak gainera ekintzen eskaintza indartu du hegaziak ikusteko egin daitezkeen bisitekin, bai [Pitillasko Hezeguneari](#) zein [Vianako Las Cañas urtegian](#), edota gauez izarrak ikusteko aukera: Aralarko Mikel Deunan, Erronkari-Belaguan, Lerin edo Vasco Navarro trenbidea.

Aurrekoetan bezala, Bide Berdeetan, Gaztelu eta Gotorlekuen ibilbidean zein ibilde Erromanikoan dauden 40 altxorrak deskubritzeko geocaching ekintza mantendu da, familiekin egin daitezkeen ekintza paregabea, geolokalizazio jolasak eta txangoa uztartzuz.

[Ardoaren Ibilbideak](#) ere produktu horren inguruko ekintzak antolatu ditu, upategi eta mahastietara bisitak, gurdian ibilaldiak edo dastaketak ibilbidea osatzen duten lau zonaldeetan barrena.

Iruñak “[Iruña loretan](#)” jaialdia jarri du martxan, apirila eta maiatzean parke eta jardinetan egin daitezkeen ekintzak jaso, dastaketa, gastronomia eta kontzertuekin batera. Gainera, ostegun honetan Donejakue bidearekin lotutako [Ultreia zentroa](#) zabalduko da ostegun honetan, txango irisgarriak zein dohako bisitak antolatuz. Igande honetara arte Donejakue bidean dauden upategietara bisitak eginen dituzte.

Eta gastronomia ardatz hartuta, hialbete hauetan zehar produktuekin lotutako ekintzak eta asteak egingo dira, horien artean, Tuterako Barazkien jardunaldiak, Pintxoaren Astea Iruñean, zein, zainzuri, ardo gorri, gerezien eguna edota Bertako Produktuen Azoka Ekologikoa.



Tokiko produktuen erakusketa

Galería de fotos



Aurkezpena ondoren, Nafarroako
pastak, ardoa eta olioak dastatu dira.

Bulegoko teknikaria, Manu
Ayerdirekin.